

8/2017 AKTA
NAFARROAKO UDALERRIEN ETA KONTZEJUEK FEDERAZIOAREN BATZORDE BETEARAZLEAK
AZAROAREN 21ean EGINDAKO BILKURA BEREZIA

BERTARATUAK:

PRESIDENTEA:

Pablo Azcona Molinet jn., *Lodosako alkatea*

1. PRESIDENTEORDEA:

Raquel Garbayo Berdonces and., *Cintruénigoko alkatea*.

2. PRESIDENTEORDEA:

Jesús M^a Rodríguez Gómez jn., *Ribaforadako alkatea*.

BATZORDEKIDEAK:

Javier Albizu Sanz jn., *Artazuko alkatea*.

Cruz Moriones Uriz jn., *Ustaizeko Kontzejuko burua*.

Nieves Recalde Zaratiegui and., *Etxagueko Kontzejuko burua*.

Ur Algueró Chivite jn., *Aresoko alkatea*.

Unai Laco Goñi jn., *Agoizko alkatea*.

Arturo Golaracena Asa jn., *Tafallako alkatea*.

Karmele Maraño Chasco and., *Arbizuko alkatea*.

Alfonso Etxeberria Goñi jn., *Eguesibarko alkatea*.

Yolanda González García and., *Vianako alkatea*.

Aritz Romeo jn., *Iruñeko zinegotzia*

Ángel Obanos Galar jn., *Artikako Kontzejuko burua*.

Luis Alfonso Potestad Tellechea jn., *Aurizko alkatea*.

Eneko Larrarte Huguet jn., *Tuterako alkatea*.

María Vicenta Goñi Azanza and., *Gesalazko alkatea*.

Angel Navallas Echarte jn., *Zangoza aldeko Mankomunitatekoa*

Unai Laco Goñi jn., *Agoizko alkatea*.

Ezequiel Martín Muxika jn., *Atezko alkatea*.

Raimundo Aguirre Yanguas jn., *Fiteroko alkatea*

Ezin etorria adierazi dute:

David Alvarez Yanguas jn., *Castejóngo alkatea*.

Mario Fabo Calero jn., *Martzillako alkatea*.

IDAZKARIA:

Berta Enrique Cornago and.

Iruñean, bi mila eta hamazazpiko azaroaren hogeita batean, arratsaldeko lauretan, bigarren deialdian, aldamenean adierazitakoak bildu dira Nafarroako Udalerrien eta Kontzejuen egoitzan (Tutera kalea, 20, 3. solairua, Iruña), Batzorde Betearazleko kideak baitira. Bilkuraren buru Pablo Azcona Molinet jn. aritu da, eta idazkari, berriz, Berta Enrique Cornago and. Hona hemen

GAI-ZERREDA

- 1.- Aurreko bilkuraren akta onestea.**
- 2.- Informazioa sektoreko batzordeei eta kontseiluei buruz.**
- 3.- Sektoreko batzordeetako eta kontseiluetako ordezkariak izendatzea.**
- 4.- NUKFren 2017ko Batzar Nagusi Arruntaren deialdia eta gai-zerrenda.**
- 5.- NUKFren 2017ko Kudeaketa Txostena.**
- 6.- NUKFren 2018ko Jarduketan Programa.**
- 7.- NUKFren 2018ko Aurrekontua.**
- 8.- Lankidetzaren hitzarmena NUKFren eta Goiener SCren artean.**
- 9.- Presidentearen informazioa.**
- 10.- Galde-eskeak.**

1. PUNTUA. Aurreko bilkuraren akta onestea.

Aurreko bilkuraren aktaren kopia igorrita deialdiarekin batera, aldeztu aurretik irakurri beharrik gabe, presidentek galdetu du Batzorde Betearazleko inork oharrik duen haren inguruan

Inork ez du oharrik egin.

Bertaratutakoen gehiengoarekin,

ERABAKI DA:

2017ko urriaren 10ean egin bilkuraren akta onestea.

2. PUNTUA. Informazioa sektoreko batzordeei eta kontseiluei buruz.

Honako informazio hau eman da egindako batzorde eta kontseilu sektorialen gainean:

- **Toki Araubideko Foru Batzordea (2017/10/18).** Hondakinei eta horien fiskalitateari buruzko Foru Legearen Aurreproiektuaren txostena egin zen.
- **Eskola Kontseilua (osoko bilkura) (2017/10/25).** Jakinarazi zen udaberriko jardunaldi berriak prestatzen ari direla, eremuen erabilerari buruzkoak izanen direnak. Orobat, 79/2012 Foru Aginduari txostena egin zitzaion. NUKFk kontseilu horretan dituzten ordezkariak boto partikular bat eman zuten argitzeko %80koa izan behar duela Haur Hezkuntzako ikastetxeei egiten zaien lehendabiziko ordainketak.

Ikastetxe horiei dagokienez, presidenteak adierazi du Hezkuntza Departamentuak berehala igorriko duela lan taldean erabakitako proposamenen ihardespena.
- **EUPFren Lurralde Kontseilua. (2017/10/31).** Informazioa eman zen berriz gastuaren arauari eta gehieneko gastuari buruz, superabitaren inbertsioari buruz, eta, gai-zerrendatik kanpo, Espainiako Konstituzioaren 155. artikulua aplikatzearen aldeko adierazpena planteatu zen. Presidentea abstenitu zen bozketan, uste baitzuen ezen, gai-zerrendan alde aurretik sartuta ez zegoenez, ezin izan zuela hura behar bezain goiz aztertu.
- **Nafarroako Ekonomia eta Gizarte Kontseilua. (2017/11/06).** Txostena egin zitzaion Nafarroako 2018ko Aurrekontuei buruzko Foru Legearen proiektuari.
- **Toki Araubideko Foru Batzordea. (2017/11/06).** Txostena egin zitzaion Nafarroako 2018ko Aurrekontuei buruzko Foru Legearen proiektuari.
- **Nafarroako Ingurumen Kontseilua. (2017/11/06).** NUKFk batzorde horretan duen ordezkariak jakinarazi du aurrekontuaren aurka bozkatu zuela, haren ustez ingurumenaren arloko zenbait partida behar adinakoak ez zirelako.
- **Babestutako Enplegua Sostengatzeko Batzordea (2017/11/06).** NUKFri eskatu zitzaion jarrai zezala laguntzen enplegurako zentro bereziei kontratuak erreserbatu behar zaizkiela zabalitzen.
- **Kontratazio Administratiboaren Batzordea. (2017/11/13).** Txostena egin zitzaion administrazio publiko guztientzat ezarri gogo den kontratazio elektronikoaren sistemaren funtzionamenduari.
- **Nafarroako Ongizatearen Kontseilua. (2017/11/20).** Txostena egin zitzaion Gizarteratzeari buruzko Foru Legea eta Etxebizitzaren Plana garatzeko foru dekretuari.

ERABAKI DA: Jakinaren gainean daudela adieraztea.

3. PUNTUA. Sektoreko batzordeetako eta kontseiluetako ordezkariak izendatzea.

Proposatu da ordezkari hauek izendatzea ondoko batzorde eta kontseiluetan:

- Nafarroako Babes Zibilerako Batzordea
 - Raquel Garbayo Berdonces, Cintruénigoko alkatea.
 - Eneko Larrarte Hugueta, Tuterako alkatea.Ordezkoa: Pablo Azcona Molinet, NUKFko presidentea.
- Nafarroako Etxebizitza Kontseilua
 - Pablo Azcona Molinet, NUKFko presidentea.

ERABAKI DA:

Izendapena adierazitako moduan onestea.

4. PUNTUA. NUKFren 2017ko Batzar Nagusi Arruntaren deialdia eta gai-zerrenda.

Proposatzen da NUKFren Batzar Nagusi Arruntaren bilkura 2017ko abenduaren 15ean egitea, Iruña Park hotolean, 16:30ean lehendabiziko deialdian, eta 17:00etan, berriz, bigarreanean. Hona hemen gai-zerrenda:

- 1.- 2016/12/16ko eta 2017/6/30eko batzarretako aktak onestea.
- 2.- NUKFren 2017ko Kudeaketa Txostena onestea.
- 4.- NUKFren 2018ko Jarduketan Programa onestea.
- 5.- NUKFren 2018ko Aurrekontua onestea.
- 5.- Galde-eskeak.

ERABAKI DA:

NUKFren Batzar Nagusi Arruntaren bilkura 2017ko abenduaren 15ean egitea, Iruña Park hotolean, 16:30ean lehendabiziko deialdian, eta 17:00etan, berriz, bigarreanean, proposatu den gai-zerrenda berarekin.

5. PUNTUA. NUKFren 2017ko Kudeaketa Txostena

Presidentek kudeaketa txostenaren punturik aipagarrienak azaldu ditu. Batzorde Betearazlearen deialdiarekin batera igorri da kudeaketa txostena, NUKFren Batzar Nagusi Arruntaren onespenera jarri gogo baita.

Hitza eman zaie bertaratutakoei.

Garbayo andreak hitza hartu eta adierazi du ezen, Funtsari buruzko Legeaz den bezainbatean, badakiela zirriborro batekin lan egin dela eta Batzorde Betearazleak ez duela horren berririk izan.

Presidentek azaldu du Funtsa banatzeko azken proposamena egin gabe dagoela. Adierazi du Foru Batzorde baten deialdia egin behar zela, aldez aurretik Batzorde Betearazlera eraman behar zen proposamen batekin, baina azkenean ez dela hala izan.

Gaia Batzorde Betearazlearen onspenera jarrita,

ERABAKI DA:

Kontra bi boto dituela eta abstentziorik gabe, 2017ko Kudeaketa Txostena onestea, zein aktara eransten baita, eta NUKFren Batzar Nagusi Arruntaren onspenera jartzea.

6. PUNTUA. NUKFren 2018ko Jarduketan Programa.

Presidenteak jarduketa programaren punturik aipagarrienak zehaztu ditu, eta, horietatik, jarduteko lau ildo nagusiak nabarmentzen dira, besteak beste, NUKFren Plan Estrategikoa egitea.

Ondoren, hitza eman zaie bertaratutakoei.

Rodriguez jaunak adierazi du planaren barnean toki handiagoa izan beharko lukeela administrazio elektronikoaren ezarpenak. Haren ustez, horretan jarduteko berariazko ildo bat ezarri beharko litzateke eta babes handiagoa eman toki entitateei.

Presidenteak zehaztu du ongi iruditzen zaiola gehiago nabarmentzea administrazio elektronikoaren arloan egin beharreko jarduketak eta NUKFren plan estrategikoan berraztertu beharko liratekeela eman gogo diren zerbitzuak eta jarduerak.

Romeo jaunak adierazi du ANIMSA kontuan hartu beharko litzatekeela egin gogo diren jarduketetan, hura baita udal sozietate publikoa.

Presidenteak, bere aldetik, proposatu du gehiago nabarmentzea Berdintasunaren aldeko Udalen Sarea, NUKFren partaidetzarekin abian jarri gogo dena.

ERABAKI DA:

NUKFren 2018ko Jarduketan Programaren proposamena onestea, zein aktara erantsi baita egindako ekarpenekin, eta NUKFren Batzar Nagusi Arruntaren onspenera jartzea.

7. PUNTUA.- NUKFren 2018ko Aurrekontua.

Presidenteak NUKFren 2018ko Aurrekontuaren proiektua aurkeztu du; ondoren, idazkari nagusiak azaldu du zer partida aldatu diren gehien aurreko ekitaldiko aurrekontuaren aldean.

Hitza eman zaie bertaratutakoei.

Martin jaunak hitza hartu eta adierazi du NUKFren Plan Estrategikoaren barnean aztertu beharko litzatekeela beharrezkoa den Concejo aldizkaria inprimatzea, zeren, haren irudikoz, aski baita bertsio elektronikoarekin.

Presidenteak zehaztu du aldizkariaren maiztasuna murriztu dela dagoeneko, eta, haren iritziz, komeni dela inprimatutako bertsioari eustea, NUKFren presentzia handitzen duelako eta, horretaz gain, bide ematen duelako hautetsi guztiei ailegatzea, ez bakarrik udalburuei.

Aldizkariari dagokionez, Algueró jaunak adierazi du euskararen zatia handiagoa izan beharko litzatekeela.

Ildo horretan, Etxeberria jaunak iradoki du izenburuak eta idazpuruak elebidunak izan beharko liratekeela gutxienez.

Garbayo andreak langileriaren partida seinlatu du eta adierazi du igoera nabarmena izan duela jardunaldi osoan kontratatu delako euskaren teknikari-itzultzaile bat, eta, horregatik, abstenitu eginen dela bozketan.

Gehiengoz, bi abstentzio daudela,

ERABAKI DA:

NUKFren 2018ko Aurrekontuaren proiektua onestea, zein aktara eransten baita, eta Federazioaren Batzar Nagusiaren onespenera jartzea.

8. PUNTUA.- Lankidetzaren hitzarmena Nafarroako Udalerri eta Kontzejuen Federazioaren eta Goiener SCren artean.

Lankidetzaren hitzarmen bat proposatzen da NUKFren eta Goiener SCren artean, tasak kudeatzearren tokiko jabari publikoaren aprobetxamendu bereziarengatik edo erabilera pribatiboarengatik, elektrizitatearen, gasaren eta abarren hornidura zerbitzuak ematen dituzten beste enpresa batzuen baldintza berberetan. Zehaztu da elektrizitate guztiz berriztagarria merkaturatzen duen enpresa dela, 126 udalerritan aritzen dela eta horregatik dagoela justifikaturik hitzarmen hori onestea, haren helburua tasaren kudeaketa erraztea baita.

ERABAKI DA: Hitzarmenaren izenpetzea onestea, zeinaren testua akta honetara eransten baita.

9. PUNTUA.- Presidentearen informazioa.

Presidenteak gai hauei buruzko informazioa eman du:

- **Transferentzia Arrunten Funtsa.**

Presidenteak laburbildu du Transferentzia Arrunten Funtsearen oraingo egoera.

Alde batetik, jakinarazi du aurrekontuek 219 milioi euroko zuzkidura dakartela, eta esleipen bat dutela montepioetarako. Adierazi du 50 udal onuradun aterako liratekeela esleipen horrekin.

Zuzkidura banatzeari dagokionez, adierazi du zaila dela proposamen bat zehaztea, batez ere desadostasunak daudelako izan behar duen berme baldintzarekin.

Adierazi du Toki Administrazio Departamentuak proposamen bat noiz igorriko zain gaudela eta Foru Batzordean txostena egin beharko zaiola; ildo horretan, erantsi du Batzorde Betearazleko kide guztiei helaraziko zaiela.

- **Nafarroako Berdintasunerako Institutuarekin izandako bilkura, aztertzeo aukerarik dagoen Berdintasunaren aldeko Udallerrien sare bat eratzeko.**

Gai honen inguruan, Garbayo andreak adierazi du ez dagoela garbi noren menpe egonen den sare hori.

Goñi andrearen iritziz, komeni da sare hori abian jartzea eta, horregatik, eskatu du NUKFk bultza dezala.

Albizu jaunak adierazi du planteamendua orokorragoa izan beharko litzatekeela, koordinaziorik gabe ari direlako lanean esparru askotatik.

- **Nafarroako Gobernuako Ondare Zerbitzuak NUKFren lankidetzarekin egin gogo dituen jardunaldiak, lizitazio elektronikoa aurkezteko.**
- Jakinarazi du nola dagoen Toki Ogasunei buruzko Foru Legea aldatzeko Foru Legearen aurreproiektuaren tramitazioa, **gainbalioaren gaineko udal zerga** aldatu gogo baita Konstituzio Epaitegiak emandako epailetara egokitzeko.

ERABAKI DA:

Jakinaren gainean daudela adieraztea.

10. PUNTUA- Galde-eskeak.

Larrarte jaunak adierazi du NUKFk ez duela egin esleiturik zuen lana, hau da, funtsa banatzeko proposamen bat prestatzea, formula ez aplikatzearen eta Iruñeko Udala sartzearen ondoriozko eraginak apaltzeko.

Hori dela eta, eskaera bat egin du NUKFk aurkez diezaiola Nafarroako Gobernuari hura banatzeko proposamena eta Foru Batzordeko Toki Araubideko kideek egin dezatela proposamen hori.

Romeo jaunak hitza hartu eta adierazi du hori ez dela eskaera bat egitea, ezpada erabaki bat hartzea bilkuraren gai-zerrendan agertzen ez den gai baten inguruan. Eskaeraren edukiari dagokionez, adierazi du ez dela harekin bat etortzen, ziurtzat jotzen baitu adostasuna lortu dela dagoeneko funtsa banatzeko irizpideak zehazteko orduan.

Presidenteak adierazi du ezen, lehenago jakinarazi duen moduan, Departamentuak proposamen bat noiz igorriko zain gaudela.

Eta aztergai gehiagorik ez dagoela, presidente jaunak bilkura amaitutzat eman du, goiburuan aipatzen den eguneko arratsaldeko sei eta erdiak direnean. Idazkari naizen honek honako akta idatzi eta horren fede ematen dut, eta presidentearekin sinatu dut.

PRESIDENTEAREN ONIRITZIA,

IDAZKARIA,

Pablo Azcona Molinet jn.

Berta Enrique Cornago and.